


2018

KONTSEILUAREN
URTEKO
IRAKURKETA
ETA ONDORIOAK

www.kontseilua.eus



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA





Izenburua: Kontseiluaren urteko irakurketa eta ondorioak

Egilea: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

Argitaratze-data: 2018ko azaroaren 16a

Ale kopurua: argitalpen digitala (www.kontseilua.eus atarian eskuragarri)

KONTSEILUAREN URTEKO IRAKURKETA ETA ONDORIOAK

4

1. ATARIKOA

1.1. Sarrera	5
1.2. Edukien antolaketa	5

6

2. PROPOSAMEN-URTEA

2.1. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Euskal Herriko Garapena	7
2.2. EAEko Estatutu Politiko Berrirako Proposamena	8
2.3. Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko dekretu baterako proposamena	9
2.4. Doakotasuneranzko bidea Nafarroan	10
2.5. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko lege-proposamena	10
2.6. Arnasguneak: Prebentziotik garapenera	12
2.7. 2018an plazaratutako zenbait azterketa	13

14

3. HIZKUNTZA-POLITIKEK EMANDAKOA

3.1. Corpus juridikoa eta araugintza	15
3.2. Plangintza	20
3.3. Baliabideak	21
3.4. Euskal Herri osoko administrazio nagusien ituna	23

24

4. HERRI-GOGOA


4.1. Euskaraldia	25
4.2. Nafarroako dinamikak	26
4.3. Bestelako mobilizazioak, ekimenak eta dinamikak	26
4.4. Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren mendeurrenak	27

28

5. ONDORIOAK

1

ATARIKOA



1.1. SARRERA

2017an Euskararen Gizarte Erakundeek KONTSEILUAK lehen aldiz antolatu zuen *Urteko irakurketa* izeneko ekimena. Orduan esaten genuen, bai, KONTSEILUAN maiz izan genuela buruan euskararen normalizazioari buruzko aldizkako azterketa egiteko ideia, eta horrexegatik, hain zuzen ere, ekin genion ildo berri horri.

Hizkuntzaren normalizazio-prozesuaren zurrinbilan geldialdia egin, urteak eman duena aztertu, jorratu eta baloratu, eta horrek utzitako ondorioekin hurrengo urteko ildoak zehaztea da lanketa honek duen xede nagusienetakoa.

Askotan esan izan dugu hizkuntzaren normalizazioa prozesua dela, eta hortaz, nahitaezkoa da aldizkako balantzeak egitea hurrengo urratsak zehaztasun handiagoz identifikatu ahal izateko. Horri laguntzeko ekin zion KONTSEILUAK jardun honi, hain zuzen ere, euskararen normalizazioan urrats eragingarriagoak egin ahal izateko gakoak eskaintzeko.

Horrela, aurten ere, urteko irakurketa aurkeztu nahi dugu iazko jarduna balio handikoa izan zela uste dugulako.

1.2. EDUKIEN ANTOLAKETA

Aurtengo irakurketak antzekotasun ia osoa du iazkoarekin. Horrela, lanketa egiteko KONTSEILUAK prentsan euskararen normalizazioaren inguruan jasotako berriak izan ditu oinarri. Urtean zehar hedabideetan hizpide izan diren gertaerak baliatu ditugu dokumentua prestatzeko. Egia esan, gertaera guztiak jasotzeko bokazioa ere ez dugu izan. Hortaz, KONTSEILUAREN aburuz, normalizazioarekin lotura handiena duten berriak jasotzeko ahalgina egin dugu, horiekin urteak zer eman duen osatu ahal izateko.

Bestalde, berriak eta gertaerak sailkatzearen, aurten ere, KONTSEILUAK hizkuntzaren normalizazio-prozesua horrenbestetan baliatzen duen lau zutabeen irudia baliatu dugu:



Horrela, urteko gertaerak lau zutabe horien arabera antolatzeko saiakera egin dugu. Egia da, bai, batzuetan berri edo gertaera bat zutabe bati baino gehiagori lotu dakioketela. Horrelakoetan, KONTSEILUAREN irizpidea izan da gertaera horren une horretan non duen eragin handiagoa aintzat hartzea, multzo batean edo bestean kokatzeko.

Hainbat kasutan, gainera, KONTSEILUAK gertakari horien inguruan zabaldutako iritzia ere jaso dugu, bai eta beste zenbait eragilerena ere.

2

PROPOSAMEN-URTEA



2017ko urteko irakurketa prestatzen ari gine-la, oso argi ikusi genuen urte hori "neurketa urtea" izan zela. Azken finean, euskararen egoerari temperatura hartzeko bi neurgailu garrantzitsuren emaitzak kaleratu ziren, VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta VII. Kale Erabile-raren Neurketa. Horrela, azterketa horiek aurkeztutako emaitzak etorkizuneko estrategia definitzeko arras garrantzitsuak eta kontuan hartzekoak zirela ondorioztatu genuen.

2018 urtea, aldiz, proposamenetarako urtea izan dela ikusi dugu. KONTSEILUAREN sorreratik bokazioa izan da hizkuntza-politikaren inguruan edota unean uneko eztabaidetan proposamenak egitea. KONTSEILUAREN sorreran bertan Bai Euskarari Akordiotik hasita, azken hogeitaz urteotan makina bat proposamen egin du Kontseiluak eremu desberdinen inguruan, besteak beste, hizkuntza-politika orokorra, hezkuntza, lan-mundua, kontsumitzaileen eskubideak, etab.

Zalantzarik ez dugu 2018 urtea ere oso aktiboa izan dela proposamenen atalei dagokienez, hizkuntza-politikarekin lotutako eztabaida interesgarriak izan direlako batetik; eta etorkizunari begirako lanketa berezituak egin ditugulako bestetik. Hori dela-eta, aurtengo irakurketan Kontseiluak urtean zehar egindako proposamenen laburpena modu berezitu-jasotzea erabaki dugu.

Hona hemen kaleratutako proposamen nagusiak:

2.1. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOAREN EUSKAL HERRIKO GARAPENA

2016ko abenduaren 17an, hogeita hamar hizkuntza-komunitate baino gehiagoko ehundik gora eragileren babesarekin, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu genuen Donostian.

Urte batez Europa osoko gizarte eragileen ekarpenak jaso eta landu ondoren, Europako hizkuntza-komunitate guztientzat baliagarria izango den neurri-sorta zehaztea lortu genuen. Lehen aldiz Europan, hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenaren alde lan egiten dugun eragileok proposamen bateratua egin genuen. Ahalduz historikoaren emaitza izan zen, zalantzarik gabe, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Egun horretan bertan Kontseiluak argi zuen harri bitxi hori landu behar genuela, eta geure betaurrekoekin Protokoloa irakurtzeko gida zehaztu behar genuela. Esan eta egin! Abenduaren 19an bertan ekin genion lanketa horri, hain zuzen ere, Protokoloan jasotzen diren



neurriak euskararen betaurrekoetatik ikusteko garapena prestatzeari.

Horretarako, nola ez, Protokoloa egiteko erabilitako estrategia bera baliatu nahi izan genuen, gizarte-eragileen ahotsa jasotzea. Pozik esan dezakegu, Protokoloa bezalaxe, Euskal Herriko Garapena ere gizarte eragileen ekarpenekin osatu ahal izan dugula, eta beraz, beste behin lortu dugu euskalgintza eta euskalgintzaz haragoko eragileak ere ariketa baten bueltan jartzea, zertarako eta etorkizuneko euskararen politikak definitzeko baliagarria izango den tresna bat prestatzeko.

Hartara, Garapenak Protokoloaren 185 neurriak eta Kaierak neurri bakoitzari esleitutako adierazleak jasotzeaz gain, neurri bakoitzean kontuan hartu beharreko elementuak biltzen ditu. Neurri bakoitzaren ezaugarriak zehaztea izan da azken urtean eragileekin egindako lana: neurri bakoitza nola ulertu behar den; neurri bakoitza betetzeak zer ekarri beharko lukeen; neurri bakoitzak zein aurreko baldintzak izan behar dituen beteta, etab.

Finean, neurri bakoitza euskararen ikuspegitik nola aplika daitekeen zehazteko balio dute ezaugarri horiek.

Horrela, inoizko babes sozial zabalena erdietsi duen Protokoloa barne-politiketan inplementatzea gure hurrengo urteetako erronka izanik, horretarako Protokoloaren Euskal Herriko Garapena tresna nahitaezkoa izango da.

2.2. EAEKO ESTATUTU POLITIKO BERRIRAKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak autogobernua delako eztabaidaren baitan EAErako Estatutu politikoa berri baterako eztabaida-prozesua zabaldu du, eta hizkuntzaren eta hizkuntza-eskubideen gaia nola kokatu berrikusteko aukera hori baliatu du Kontseiluak.

Horrela, balizko Estatutu berri batean hizkuntza eta hizkuntza-eskubideak nola jaso beharko liratekeen biltzen duen proposamen zehatza aurkeztu zuen Kontseiluak 2018ko maiatzean. Izan ere, ia berrogei urte joan dira Estatutua onartu zenetik, eta gizartean hainbat aldaketa izan dira, bai eta hizkuntzaren eremuan ere. Egia da ordutik aurrerapausoak izan direla, baina, ez nahikoak. Ondorioz, gizarte zibil antolatutako etorkizuneko hizkuntza-araudian eragin zuzena izango duen Estatutuan ekarpena egitea beharrezkotzat jo zuen Kontseiluak.



Protokoloan jasotzen diren printzipio nagusiak aintzat hartu dira proposamena osatzeko orduan eta hizkuntza-eskubideak eskubide estatutarioetan modu zuzenagoan jaso beharra ondorioztatu zuen; horrexegatik, hain zuzen ere, ekarpen integrala egin nahi izan du Kontseiluak.

Aurkeztutako dokumentuaren edukiari dagokionez, eta zuzenean hizkuntzaren statusari dagokionez, Kontseiluaren proposamenaren arabera, lurralde osoan ofiziala izango da; euskara berezko hizkuntza izendatzen da EAEen; administrazioan erabilera normaleko eta lehentasuneko hizkuntza euskara izatea jasotzen da; eta, azkenik, Europako Batasunean hizkuntza ofiziala izateko ekintzak abian jartzea ere proposatzen da.

Pertsonen arteko berdintasuna berma dadin proposamena egiten da, horrela jasoz: 'ez da hizkuntzarengatik bereizkeriarik onartuko'.

Halaber, euskara sustatu beharra ere jasotzen da. 'Botere publikoek euskara babestuko dute eremu eta sektore guztietan, bai eta erabilera, ezagutza eta zabalkundea sustatu ere'.

Euskara erabiltzeko eskubidearen inguruan ere hainbat proposamen egiten da; herritarrei hizkuntza-hautua bermatzea proposatzen da eta honekin lotuta, hortaz, hori bermatzeko betekizunak ere proposatzen dizkio administrazioari. Horretarako, administrazio publikoko langileek euskararen ezagutza-maila egokia egiaztatu beharko dute.

Proposamenean, herritar guztiei aitortzen zaie euskara ezagutzeko eskubidea, bai eta bete-beharra ere. Hori bermatu ahal izateko, besteak beste, derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean euskararen ahozko zein idatzizko ezagutza egokia izateko eskubidea eta bete-beharra izatea proposatzen da, baita beranduago datozen ikasleek hizkuntza-laguntza jasotzeko eskubidea ere. Halaber, helduen euskalduntzeari lotuta jasotzen diren proposamenen artean, euskara ikastea doakoa izatea aldarrikatzen da.

Estatuaren esku-hartzeak kontuan hartuta eta horiek saihesteko, proposamenak hizkuntza-politikaren eremuan Eusko Jaurlaritzak esku-men osoa izan beharko lukeela ere jasotzen du proposamenak.

Azkenik, hizkuntza-eskubideek berme instituzionalak, normatiboak eta juridikoak izatea eskatzen du proposamenak. Finean, hizkuntza-eskubideak eskubide estatutarioen multzoan kokatzea da proposamenaren ardatz nagusia.

2.3. DOAKOTASUNERANZKO BIDEAN NAFARROAN

2017ko uztailean EAEko gizarte ekimeneko euskaltegi gehienek babesarekin aurkeztutako proposamenaren Nafarroarako bertsioa dugu honako hau (Nafarroan gizarte ekimeneko sektore osoarekin elkarlanean jorratuta).

EAErako prestatu genuen proposamenean bezalaxe, honako honetan ere, ardatz nagusiak errepikatzen dira, hala nola, helduen euskalduntzeak hizkuntzaren normalizazio-prozesuan duen estrategikotasunaren aitor-tza; euskalduntze-prozesu osoa lagundu beharra; laguntzak aprobetxamenduan oinarrituta egon beharra eta ez azterketak gain-ditzean, eta azkenik, leihatila bakarra ahalbidetu dadila laguntza guztiak bateratzeko. Nafarroako kasuan, Hezkuntza Departamentuak kudeatuko duen leihatila izatea proposatzen dugu.

Azkenik, doakotasuna erdiesteko hurrengo bost urteetan Nafarroako Gobernuak esleitu beharreko diru-partidak ere jasotzen ditu proposamenak.

2.4. HERRI-ADMINISTRATIOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEKO DEKRETU BATERAKO PROPOSAMENA

Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko dekretu baterako proposamena egin du Kontseiluak. Legegintzaldi-programan Eusko Jaurlaritzak gaia jorratuko zuela aurreratu zuen eta Kontseiluak bere ekarpena landu eta aurkeztu nahi izan du.

EAEko Administrazioa euskalduntzeko bidean, azken hiru hamarkadetan hobetu egin da euskara era batera edo bestera ezagutzen duten langileen kopurua, abian jarri diren hizkuntza-politiken eraginez. Jaurlaritzaren arabera, "Administrazioko langile gehienak prestatuta daude, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko". Aldaketa horren eragileetako bat izan da 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erke-degoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

10 | Edonola, aurrerabide horrek ez du ekarri, hein berean, herritarren hizkuntza-eskubideen bermea, ezta euskaraz jarduten duen administrazio bat ere. Ia lau hamarkada joan dira euskara hizkuntza ofizial izendatu zenetik, eta 1982an jaiotako herritarrak, egun, zailtasunak ditu zerbitzu publikoak euskaraz eskuratzeko eta, oro har, bere bizimodua euskaraz eratzeko. Euskara hizkuntza ofiziala izanik ere, bere ezarpenean ofizialtasuna desorekatua da, gaztelaniaren mesedetan, eta Administrazioak ez ditu bermatzen euskaldunen hizkuntza-eskubideak.

Ondorioz, Kontseiluak balizko dekretu berri baterako proposamena egitea erabaki zuen. Egia da, neurri zehatzez gain, sistema bera aldatu beharra dagoela gure ustez. Eredu berri bat proposatu behar da, erdigunean jarduera eta ez lanpostua jarriko duena. Ekosistema euskalduna eraikitzea ahalbidetuko duen eredu, hain zuzen ere.

Halere, eredu berri bati buruzko hausnarketa partekatzeaz gain, Kontseiluaren proposamenak egungo ereduari lotutako neurri zehatzak egin ditu.

Horrela, honako ezaugarri nagusi hauek jasotzen dira: hizkuntza-eskubideen bermeak gidatuko du erakundearen jarduera; euskara lehenetsiko da; eta prebentzioaren eta eraginkortasunaren ezaugarriak barneratuko dira. Orain arte ez bezala, erakunde guztiei eragin beharko die Dekretuak, Kontseiluaren proposamenaren arabera. Langile berriek euskara ezagutu beharko dute eta honekin batera urrats berri bat ematea ere beharrezkoa da: sarrera-froga euskaraz egitea, alegia. Hizkuntza-gaitasun agiriari iraugitzea jartzea proposatzen du Kontseiluak euskaraz lan egiten ez dutenentzat.

Bestetik, langileen euskalduntze programa definitiboa egitea ere jasotzen da. Administrazioaren langileak bezala, politikarien euskalduntzea ere jasotzen du proposamenak. Gaur egun gertatzen denaren aldean, hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeak lanpostutik kentzeko espedienteak zabaltzea proposatzen da, bai eta salbuesteko aukera bertan behera uztea ere. Langile euskaldunek euskaraz lan egiteko duten eskubidea ere jasotzen da proposamenean.

Halaber, administrazio-kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea proposatzen da, herritarren hizkuntza-hautua beti eta ororen gaitetik errespetatzeko.

Azkenik, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea ere jasotzen da, prebentzio linguistikoaren ikuspegia txertatuz.

2.5. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZEKO LEGE-PROPOSAMENA

Nafarroako Parlamentuak 2017ko urrian Euskararen Lege Berria idazteko sortutako Bartzorde Berezian parte hartu zuen Kontseiluak 2018ko urriaren 3an eta bertan aurkeztu zuen

Hizkuntza-eskubideak bermatzeko lege-proposamena delako dokumentua.

Proposamena osatzeko hiru ardatz izan zituen Kontseiluak. Batetik, gaur egun hizkuntza ofizialak dituzten beste autonomia-erkidegoetako legeen azterketa konparatiboa egin zuen. Bigarrenik, adostasun sozial handiko dokumentuetako oinarriak ekarri zituen proposamenara, hain zuzen ere, arestian aipatutako *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*, Kontseiluaren Batzar Nagusiak 2009ko apirilaren 25ean aho batez onartutako *Hizkuntza Politika Berri Eraginkorra*, eta, azkenik, 2000. urtean OINARRIAK plataformak jorratutako eta 48.246 nafarren babesa jaso zuen *Euskararen normalizaziorako legea Nafarroan* proposamena.

Hirugarren ardatza herritarren ahotsa izan zen. Izan ere, botere legegilea Parlamentua izanik eta legeak idazteko edota onartzeko ardura izanik, bertan hartzen dituzten erabakiek herritarrei nola eragiten dien jakinarazi nahi izan zien Kontseiluak parlamentarioei.

Horrela, Kontseiluaren lege-proposamenean herritarren ahotsa islatzeko hiru bide baliatu genituen: Batetik, 2018ko udaberrian eskual-

de linguistiko guztietako herrietan antolatutako lan-saioetan herritarrengandik jasotako ekarpenak; bigarrenik, 2017ko udazkenean legeak ezarritako eremu mistoan euskaraz bizitzeko oztopoak zerrendatzeko abian jarritako dinamikan jaso genituen ehunka egoera, eta, azkenik, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak azken hamazazpi urteetan kudeatutako milaka eskubide-urraketa.

Edukiari dagokionez, legeak kontuan hartu beharreko zenbait elementu zerrendatu ziren lehenik, hala nola, berezkitasuna, eskubide-berdintasuna, eskubide-bermea, unibertsaltasuna eta gizarte-kohesioa, hizkuntza-normalizazioa, hizkuntza-iraunkortasuna, subsidiaritatea, ekitatea eta erreparazioa, prebentzioaren ikuspegia, eraginkortasuna eta progresibotasuna zein malgutasuna.

Elementu horietan oinarritutako lege berriak izan beharreko printzipioak proposatzen ditu lege-proposamenak:

- Hizkuntza-eskubideak
- Hizkuntzarengatiko diskriminazioa
- Hizkuntzaren estatusa
- Lege-garapena
- Neurri zuzentzaileak



- Baliabideak
- Ezagutzaren unibertsalizazioa
- Zehar-lerrotasuna
- Arnasguneak
- Erabilera ofiziala
- Euskalgintzari aitortza

Azkenik, lege berriak kontuan hartu beharreko esparruei lotutako proposamen zehatzak jaso genituen, hala nola, administrazioa, hezkuntza, kultura, onomastika, eremu sozioekonomikoa, hedabideak eta teknologia berriak.

2.6. ARNASGUNEAK: PREBENTZIOTIK GARAPENERA

2018an, laugarrenez Kontseiluak UEU, UEMA, Gipuzkoako Foru Aldundia eta aurten batu zaigun Gaindegiaekin batera Lurraldea eta Hizkuntzari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Azpeitian.

Egia esan, Lurraldea eta Hizkuntza (LUHI) jardunaldietako hiru edizioek ondorio argi bat utzi bazuten, hizkuntza-politikek duten zehar-kakotasunarena izan zen. Alegia, euskararen normalizazio-prozesuan, kasu askotan, zeregin edo ondorio nabarmenagoak dituztela hizkuntza-politikako sailetik aparteko beste sailetatik egiten diren politika publikoek.

Hausnarketa horretatik abiatuz, Kontseiluak, UEMA, UEU eta Gaindegiaekin batera, eta hainbat diziplinako adituren laguntzarekin, proposamen zehatza aurkeztu zuen garapen jasangarriaren esparruan: Arnasguneak, prebentziotik garapenera.

Izan ere, LUHIko azkeneko edizioan argi ikusi zen, arnasmune gehienetan euskararen ezagutzak izaniko atzerakada, etxe berrien eraikuntzarekin eta herriar berrien etorrerarekin estuki lotzen zela. Horrexegatik, lehen urrats gisa, herri erakundeen politketan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko ildoak landu genuen, garatzen duten ohiko jarduerak kalterik ez eragiteko gune euskaldunen euskarazko gizarte bizitzan eta kultur garapenean.

Horrela, beste urrats bat aurrerago egin behar dela ikusi genuen, prebentzioaren ikuspegitik igaroz, lurgune euskaldunen eta arnasmuneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak proposatzera. Izan ere, eremu horiek sendotzean eta zabaltzean jokatzeko dugu normalizazio-prozesu orokorraren arrakasta, hein handi batean.

Lurgune euskaldunen garapen jasangarri baterako, aintzat hartu beharreko irizpideak eta oinarriak jasoko dituen proposamena jorratu dugu. Horretarako, garapen horretan zeresana izan dezaketen alderdi/politika desberdinak aztertzea eta horien inguruko proposamenak mahai gaineratzea bilatu da.

Gainera, proposamena, ez dugu dokumentu itxi gisa ulertu behar. Dokumentu irekia eta bizia izatea bilatzen dugu. Arnasmuneen garapen jasangarriaren inguruko eztabaidan ekarpen bat egingo duena eta, espero dezagun, ondorengo urteetako garapen-bide horretan urratsak egiten joateko ideia baliagarriak eskainiko dituen. Eztabaidarako zabalik eskaintzen dugu, beraz, dokumentua, baina bai eta eztabaida zabaltzeko ere. Izan ere, euskararen normalizazioak ondorengo urteotan aurrera egingo badu, ezinbestekoa izango da arnasmuneen garapen jasangarria.



2.7. 2018AN PLAZARATUTAKO ZENBAIT AZTERKETA

Egia da, bai, euskararen komunitatea une oro ari dela bere egoeraren azterketa egiten. 2017an euskararen egoeraren tenperatura hartzeko bi lanketaren inguruko irakurketa xehea egin genuen; batetik, VI. Inkesta Sozio-linguistikoarena eta, bestetik, VI. Kale Erabile-raren Neurketarena.

2018an ere izan dira gure egoeraren inguruko zenbait azterketa eta horiek ere interesgarriak dira etorkizuneko estrategiak lantzeko. Halere, aurtan egin diren pare bat azterketaren nondik norakoak eta zertzelada nagusiak besterik ez ditugu jaso.

BEHATOKIAREN URTEKO TXOSTENA

Urtero legez, Hizkuntz Eskubideen Behatokia fundazioak herritarrek helarazitako 1.144 gertaerekin hizkuntza-eskubideen egoeraren argazkia egin du. Euskaldunontzat eroso sentitzeko guneak sortu beharra aldarrikatu dute, euskaraz osoki bizitzeko bidean emateko urrats gisa. Iaz, administrazioetan kontratazio politiketan erroko aldaketa eskatu zuen Behatokiak eta hori segika beharrezko ikusi du zirkuituen sorrera.

EUSKAL KULTURAREN KONTSUMOARI BURUZKO AZTERKETA

ELKAR fundazioak aurkeztuta eta SIADECO-ren eskutik egin zen *Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohituren merkatu ikerketa*. Egia da, bai, esaterako, irakurle-kopuruari dagokionez datuak ez direla oso baikorrak. Halere, azterketa sakona behar dela azaldu zuen fundazioko lehendakariak. Izan ere, arazoa ez dago eskaintzan. "Erantzun integrala behar da, gutako bakoitzak bere lana egin beharko du euskaraz gaitasun handiagoa izateko, euskaraz gehiago bizitzeko, eta euskal eskaintzara joateko. Halere, hori ez da nahikoa. Hemen neuriak behar ditugu norbana-koaren esfortzu horretan lagunduko dutenak eta euskaldunagoa den eremua ekarriko dutenak" esan zuen ELKAR fundazioko lehendakariak BERRIAN argitaratutako kolaborazioan.

3

HIZKUNTZA-POLITIKEK EMANDAKOA



3.1. CORPUS JURIDIKOA ETA ARAUGINTZA

HEZKUNTZA LEGE BERRIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Zalantzarik gabe Euskal Autonomia Erkidegoan oihartzun handien izan duen prozesua dugu Hezkuntzako Lege Berri bat adosteko zabaldukakoa.

2017ko irailaren 25ean Hezkuntza Sailak abian jarri zuen EAEn Hezkuntzaren Aldeko Akordioa erdiestea bultzatzeko prozesua, eta bertan hamarnaka eragile, sindikatu eta abarrek bildu ziren. Prozesuaren lehen urratsak egiten ari zirela, Kontseiluak agerpen publikoa egin zuen 2017ko abenduaren 4an. Bertan, hezkuntzako eragile garrantzitsuak, besteak beste, Euskal Herriko Ikastolak, Sortzen, Kristau Eskola, Hik Hasi, UEU eta HEIZE, bai eta euskal gehiengo sindikala ere, Kontseiluarekin batera atera ziren. Agerraldian zabaldu berri zen prozesuan hizkuntzaren eremuan jauzia eman beharra aldarrikatu genuen, eta eskaera bateratua egin genuen, hain zuzen ere, ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokortua abian jartzeko. Horretarako, baldintza errealak ikusten gemituela adierazi genuen, izan ere, irakasleria alde dago eta horren aldeko gehiengo soziala zein sindikala ere badaudela azpimarratu genuen.

Ondoren, 2018ko otsailaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak *Akordioaren Oinarriak* izeneko dokumentua aurkeztu zuen hezkuntza eremuko hainbat eragileren artean. *Akordioaren Oinarriak* dokumentua hezkuntza-sistemaren etorkizunerako funtsezko diren bost eremutan abiatu den hausnarketa- eta eztabaida-prozesuaren ondoren, bost hausnarketa-taldetan adostu da: modernizazioa, bizikidetzatza, hizkuntzak, ebaluazioa eta ikastetxeen autonomia.

Akordioaren Oinarriak dokumentuan hizkuntzaren atalean honako helburu nagusi hau ezartzen zaio hezkuntza-sistemari:

Euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, bi hizkuntza ofizialetan gaitasun aurreratua eta atzeritar hizkuntzan maila ertaina bermatzen duena, ikasle guztien, abiapuntua edozein dela ere, garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionala lortzeko asmoz.

Halaber, dokumentuak ikasleek erdietsi beharreko hizkuntza-gaitasunak zehazten ditu. Horrela, euskarari eta gaztelan gaitasun aurreratua eta atzerriko hizkuntzan maila ertaina bermatu beharko ditu hezkuntza-sistemak, alegia, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoaren arabera, B2 maila, gutxienez, eta B1 maila, hurrenez hurren.



Kontseiluak betidanik defendatu izan du ikasleek derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan, B2 maila, gutxienez, izan behar dutela hizkuntza ofizialetan, eta B1 maila atzerriko beste hizkuntzan. Hartara, egokitzat jo dugu *Akordioaren Oinarriak* delakoan ikasleek lortu beharreko gaitasunak zehaztea, hain zuzen ere, ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak presatzeko nora heldu beharra argiago uzten du eta erraztu egiten du beraren prestakuntza.

Elementu hori oso garrantzitsua da etorkizuneko hezkuntza-sistema definitzeko orduan, eta horrexegatik, interesgarria da *Akordioaren Oinarriek* eta Kontseiluak bat egitea ikasleek erdietsi beharreko gaitasunetan.

Adostasun horretan oinarrituta, Kontseiluak gaitasun horiek lortzeari begira proposamen integrala helarazi zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari 2018ko otsailean. Proposamenaren muina zera izan zen: *Akordioaren Oinarriak* dokumentuak, propio jaso beharko lukeela ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikas-eredu orokorra jarri behar dela abian (gaur egun indarrean dagoen murgiltze- edo mantentze-eredua oinarri), arestian aipatutako gaitasunak lortuko badira, eta ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntzaren amaierara baldintza berdinetan heltzea nahi badugu.

Dokumentua Euskadiko Eskola Kontseiluaren eskuetatik pasatuta, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu zen urriaren 22an. Dokumentua onartu egin zuen Batzordeak eta hainbat ekarpen txertatu zizkieten.

Hizkuntzari dagozkion ekarpen nagusienak honako hauek izan dira: bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesean B2 maila lortzea bermatzea; haur eskolak partzuergoko eskolek hizkuntza-proiektuetan gaztelania eta ingelese ere txerta dezatela; proiektu eleaniztunak hedatzea (euskara ardatz hartuta)...

Kontseiluak egindako ekarpenari dagokionez, eskaera ez da berariaz jaso *Akordioaren Oinarriak* dokumentuan. Horren karira, Hezkuntza Sailburuak bidalitako jakinarazpenaren ara-

bera, ikas-ereduei dagokienez, aurreragoko dokumentuetan landu beharko dira. Halaber, Sailburuaren arabera, Kontseiluak aurkeztutako dokumentuan egindako hausnarketa eta ekarpenak bat datoz hein handi batean haien dokumentuan azaltzen denarekin, baina egiten dugun proposamena askoz zehatzagoa dela aitortu zuen. Ondorioz, aurrerago garatu beharreko urratsetan erabilgarri izan daitezkeela jakinarazi zigun.

Azkenik, aipatzekoa da berriki Estatu espainiarreko Auzitegi Konstituzionalak babes-
tu egin duela LOMCEk edukiak zentralizatu izana. Eusko Jaurlaritzak jarritako helegiteari erantzun zion Auzitegiak. Izan ere, Jaurlaritzak ebaluazioaren inguruan irizpide zehatzegiak ezarri zituela salatu zuen. Horrela, bereziki euskararen kasua aipatu zuen Jaurlaritzak arlo hori berea dela gogoraraziz.

Auzitegi Konstituzionalak ez du onartu salaketa. Adierazi du Estatuari dagokiola edukien oinarria zehaztea eta erkidegoek osatzeko aukera dutela. Ondorioz, Estatuak aukera izango du ikasgeletan euskararen eta gaztelaniaren trataera berdina ezartzeko.

EAEko ESTATUS POLITIKO BERRIRAKO PROPOSAMENA

2017an ekin zion Eusko Legebiltzarrak autogobernuari buruzko ponentziaren eztabaidari, eta zenbait alderdik haien proposamenak aurkeztu zituzten udazkenean zehar.

Proposamen horiekin 2018ko uztailaren 10ean Eusko Legebiltzarreko Autogobernu Lantaldeak estatus politikoa zehazteko bidean oinarriak finkatu zituen. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak izan beharreko estatus juridiko-politikoak askotariko gaiak jorratu zituen. Atal gehienak EAJk eta EHBilduk hitzartu zituzten; eskubideenetan, Elkarrekin-Podemos batu zitzaizen indar horiei.

Euskara izeneko atalean honako hau jaso zuen proposamenak: Herritarrei berdintasunez, modu errealean eta egiazkoan aitortuko zaie

beren hizkuntza hautua erabiltzeko aukera. Euskal erakundeek egungo desoreka gainditzea ahalbidetuko duen hizkuntza-politika bat sustatuko dute.

Oinarrien dokumentu hori aditu-talde baten esku gelditu zen irailean. Talde horrek aintzat hartu behar izan ditu oinarri horiek, bai eta Eusko Ikaskuntzak herritarrekin eginiko foroe-tan jasotako iritzien txostena ere. Horrela, bi agiriak eskuan, adituek zortzi hilabeteko epea izango dute testu artikulatua Eusko Legebiltzarrera itzultzeko. Testu hori lege-proposamen giza erregistratuko dute, eta orduan taldeek aukera izango dute zuzenketak aurkezteko testu artikulatu horri.

Aurreko atalean azaldu bezala, KONTSEILUAK berariazko proposamen integrala egin zuen Estatutu berri batek euskararen eta hizkuntza-eskubideen gaian jaso beharreko elementuak proposatuz. Proposamenaren ardatza hizkuntza-eskubideak eskubide estatutarioen multzoan kokatzean datza, baina bestelako ekarpenak ere biltzen ditu.

UDAL LEGEAREN GARAPENA

Eusko Legebiltzarrak, 2016ko apirilaren 7an egindako osoko bilkuran, onetsi egin zuen 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Hizkuntza-politikaren gaian ere berrikuntzak ekarri zituen Legeak. Hala, legeak, aldeztu du, kasuan kasuko toki-erakundeak hala erabakitzen badu, euskara erakunde horretako lan-hizkuntza izatea. Era berean, modu berariazko, funtsezko eta zuzenean aurreikusten du udalek eskumenak edukitzea euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan, bai *ad extra*, hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan, bai *ad intra*, hau da, toki-erakundean bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin.

Halaber, aurreikusten dira zinegotziek hizkuntza-gaitasunak eskuratu eta hobetzeko

lagundu dezaketen neurriak ere; bi errealtateak, bai enplegatu publikoei dagokiena eta bai politikaren eremuari dagokiona, uztarturik joan behar baitira, euskararen erabileran benetako normalizazioa lortzeko, hau da, esan den bezala euskara laneko ohiko hizkuntza bihurtu dadin euskal toki-erakundeetan.

Horrela, bi artikulatu nagusi dira hizkuntza-politikari lotutakoak: Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala eta Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.

Halaber, azpimarratzeko modukoa da Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatu beharra, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko direla jasotzen duela legeak.

2018ko uztailan Eusko Jaurlaritzak aipatu Legea garatzeko dekretuaren zirriborroa aurkeztu zuen. Dekretu-proposamenaren lerro nagusiak honako hauek izan dira:

- Euskara lehenestea.
- Langileen gaitasuna eta erabilera lotzea.
- Hautetsien ulermena sustatzea.
- Herritarren hautua bermatzea.
- Kontratu publikoetan udalen obligazio berberak ezartzea.
- ELE oinarri izatea azpiegitura proiektuak onartzerako.

Kontseiluak zenbait alegazio egin zituen Dekretuaren gainean. Alegazioetan behin baino gehiagotan errepikatu zen ideia bat, hain zuzen ere, ahalko da jartzen duen tokietan egingo da jartzea. Finean, iruditzen zaigu borondatek hurrengo urratserako bidea propio jaso beharko lukeela Dekretuak.

Zalantzarik ez dago, Dekretu berriak elementu interesgarriak jasotzen dituela, baina nolabaiteko kontraesana ere islatzen du.

Izan ere, Jaurilaritzako ingurumen sailaren arabera “lurralde antolamenduak ez du bere eremua gainditu behar hizkuntzarekin lotutako esparruetan sartzeko; ez da erraza ikustea euskarak lurralde antolamenduarekin duen inplikazioa”. Are gehiago, argudio horiek baliatu zituen lurralde antolaketarako gidalerroetatik arnasmuneei buruzko atala kentzeko. Horrela, ikuspegi hori eta dekretu-proposamena bat ez datozela iruditzen zaigu. Kontraesan bat azaleratu da, beraz.

DISKRIMINAZIOA BETIKOTZEKO ARAUDIA

Iazko amaieran eta 2018ko ekainean Nafarroako Parlamentuak onartutako bi arauk langile euskaldunon bereizkeria betikotzea ekarri zuten.

Batetik, 2017ko abenduan hezkuntza publikoan zerrenda bakarra egin ahal ez izateko legea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak, eta, ondorioz, lanpostu publikoetako euskal hautagaiek bi listatan apuntatu, eta ondorioz, bi hautaketa-prozesu egin beharko dituzte. Horrela, irakasleak hizkuntzaren arabera segregatzeko legea onartu zuten.

Aipatu behar da, legea onartu baino egun batzuk lehenago milaka herritarrek horren aurka jarri zuten agertu zutela Iruñean, Kontseiluak deitutako eta euskal gehiengo sindikalak babestutako manifestazioan.

Bestetik, 2018ko ekainaren 21ean Nafarroako Parlamentuak eztabaidagai izan zuen funtzionario euskaldunek euskara derrigorrezko ez den lanpostuetara lekualdatzeko aukera izatea. Izan ere, egungo legeriak funtzionario euskaldunak zigortzen ditu. Euskararen ezagutzarekin besterik ez da hori gertatzen; eta ondorioz, ateak ixten zaizkie euskarazko ezagutza ezarrita duten lanpostuak betetzen dituztenei.

UPNk zabalduetako bidea izan zen, eta lege bilakatu zuen auzitegiak gaitzetsi zutelako dekretu bidez arautzea. Halere, dekretu bidez

arautu nahi izan zuenean, Nafarroako Auzitegiak ebatzi zuen Nafarroako Gobernuak eza gutza zigortzen zuela.

Jarrera horiei kontrajarriz-edo, izan da Nafarroako Auzitegitik epai positiborik, hain zuzen ere, 2018ko abuztuan Nafarroako Auzitegiak atzera bota zuen AFAPNA sindikatuak jarritako helegitea, zeinaren arabera, auzitan jarri nahi izan zen administrazio laguntzaile bati euskarazko C1 hizkuntza-eskakizuna galdegitea.

Hartara, Nafarroako Auzitegiak zentzuzko ikusten zuen administrazioak bere plantilla organikoko postu batzuei euskara eskakizuna jartzea, teknikoki justifikatuta dagoenean. Gainera, Auzitegiak berak gogorarazi zuen euskara berezko hizkuntza dela Nafarroan.

EUSKARAREN LEGE BERRIRAKO PROPOSAMENA NAFARROAN

2017ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran, EHBilduren ekimenez, eta GEROA BAI zein PODEMOS-AHAL DUGU alderdien babesarekin, eta UPNko kide baten faltarengatik, Nafarroako Parlamentuak Euskararen Lege Berri bat jorratzeko Batzorde Berezi baten sorrera onartu zuen.

Batzordeak 2018ko otsailaren 19an ekin zion bideari, eta egutegia adostu zuten hainbat adituk eta elkartek iritzia eman zezaten. 2018ko apirilean hasi ziren adituen parte-hartzeak. Kontseiluak urriaren 3an aurkeztu zuen arestian aipatutako *Hizkuntza-eskubideak bermatzeko lege-proposamena* izeneko dokumentua.

UPN eta PP alderdiek batzordean ez parte hartzeko erabakia hartu zuten hasieratik, eta beraz, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu, PSN eta Ezkerra alderdiak izan dira.

Adituen eta arituen agerraldiak amaituta, alderdiei dagokie orain proposamena onartzea Parlamentura helarazteko. Halere, gogoan izan behar dugu, Parlamentuak egindako

mandatuan lege berriak hiru irizpide kontuan hartu behar zituela: Herritar guztiei hizkuntza-eskubideak babestea, hizkuntza-zonifikazioa gainditzea eta euskara Nafarroa osoan ofizializatzea.

KONTRATU PUBLIKOEN LEGEA

2018ko apirilaren 12an Nafarroako Parlamentuak 2/2018 Legea onartu zuen, Kontratu Publikoei buruzkoa. 230 artikulua dauzkan legeak lau gako nagusi biltzen zituen, eta horietako bat euskarari buruzkoa zen. Horrela, hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, jendaurreko arreta eskaintzen duten enpresek euskara plan bat ondu beharko dute. Horretaz gain, langileentzako formakuntza ere aipatzen du legeak, baina ez du ezartzen betebeharrak zehatzik eta enpresen esku uzten du plan horien inplementazioa.

Urrats txikia egin zuen, eta akaso ikuspegi sinbolikoa izan zuen praktikoagoa baino. Halere, kezkatzeko modukoa da Legea bera onartu

zenean, baietza eman zion alderdietako batek euskarari buruzko egindako urratsa gutxieneko izandako jarrera.

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK EUSKARA OFIZIALKI AITORTU DU

2018ko ekainaren 23an euskara eta gaskoia lurralde hizkuntza gisa ofizialki aintzat hartzen dituen ebazpena onartu zuen Euskal Hirigune Elkargoak. 145 aldeko boto, 18 kontrako eta 22 abstentzio jaso zituen ebazpenak.

Zalantzarik gabe, urrats sinboliko handia izan zen aipatu ebazpena, lehen aldiz euskarari nolabaiteko aitortza esleitzen ziolako neurri horretako instituzio batek. Halere, kontuan hartu behar da euskara ofizialki aitortu izanak ez duela eragin zuzena euskarak egun Ipar Euskal Herrian duen estatusarekin. Hartara, hizkuntzari aitortza emateak ez du esan nahi egun euskarak Ipar Euskal Herrian estatus ofiziala duenik.



EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA

2017ko abenduan legealdian hizkuntza-politikan izango dituen lan-ardatzak zehaztu zituen Eusko Jaurlaritzak: Euskararen Agenda Estrategikoa.

Agendak berritasun bat dakar, hain zuzen ere, helburu neurgarriak zehaztu dituzte. Horrela, Agendak jasotzen du hiru urte barrurako erabat bermatzea euskarazko zerbitzua eta euskarazko lan jarduna erdia baino gehiago izatea.

Administrazioaren esparruari begiratuz gero, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharrak du pisua. Horretarako, batetik, langileen hizkuntza-gaitasuna areagotu nahi dute. Bestetik, euskarazko jarduna areagotu nahi dute: herritarrei begira, zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea erabat bermatzea. Lan hizkuntzaren arloan ere eman nahi dituzte pausoak: euskarazko lan jarduna erditik gora egiteko xedea jarri dute.

Beste hainbat arlotako helburuak ere zehaztu dituzte: gazteak, corpora, udalerrir euskaldunak, teknologia berriak... Erabilera ardatz hartu dute guztietan.

LURRALDEA ANTOLATZEKO LERROEN BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA

Arestian aipatu dugu nolabaiteko kontraesana ikusten dugula Udal Legea garatzeko egin den dekretu-proposamenak jasotzen duenaren eta lurraldea antolatzeke lerroen behin-behineko txostenaren artean.

EAEko lurraldea antolatzeke gidalerroek, euskarari zegokion atalean, euskararen koo-fizialtasun erreala eta eraginkorra sustatzeko helburua jasotzen zuten. Halere, helburu hori kendu zuten gidalerroen azken bertsioan. Are gehiago, ez da euskararen atalean izan den

aldaketa bakarra. Arnasguneak babesteko eskatzen zuen zatia ere kendu egin dute helburuak erdiesteko hartu beharreko neuri orokorren artetik.

Urtarrilaren 31n onartu zuen Lurralde Antolatzeke Batzordeak euskararen atalean aldaketa horiek dituen txostena, eta agiri horretan zehaztu dira EAEko lurralde erabilerak 2040. urtera arte: hirigintza, inguruaren zaintza, lurrraren erabilera...

Lurraldea antolatzeke gidalerroak berritzeke prozesuan, Jaurlaritzak erabaki berritzaila hartu zuen, izan ere, aintzat hartu zituen lurraldeari estu lotuta egon gabe lurraldean nolabaiteko eragina zuten gaiak: euskara, generoa, klima aldaketa, irisgarritasuna, osasuna eta lurralde barruko harremanak. Euskarari zegokion atalean, Euskara 21 agiriaren iradokizunak aintzat hartu ziren.

Elementu horiek kendu izanaren gainean Lurralde Plangintzarako Sailburuordeak adierazi zuen euskarak lurraldearekin duen inplikazioa ez dela erraz ikusten.

Horretaz gain, aurkeztu zuten dokumentuan euskarari lotutakoak ez dira gidalerroak, gomendioak baizik. Semantika oso garrantzitsua da politika publikoak definitzen direnean, eta ez da gauza bera gidalerro batzuk oinarri dituzten erabakiak hartzea, edo gomendioak oinarri dituztenak. Finean, lehenak bigarrenak baino betearazleagoak dira. Gainera, Lurralde Antolaketarako Gidalerroen proposamen honek baldintza lezake gerorako bidea, bai eta luzaroan baldintzatu ere, hurrengo hogeita bi urteetan aplikatuko diren gidalerroak direlako, ia belaunaldi batez.

Kontseiluak eta UEMAk erabaki horiek kritikatu zituzten, baina gogorarazi zuten oraindik aukera dagoela hori guztia konponbidean jartzeko. Horregatik, Hasierako Onarpenaren dokumentuari berriro ere emendakina aurkeztu diogu Kontseiluak eta UEMAk.

Euskara eta gaskoia lurralde hizkuntza aintzat hartzen dituen ebazpenaren osagarritz, bigarren ebazpen bat ere onartu zuen Euskal Hirigune Elkargoak. Ebazpen horrek euskararen alde erakundeak garatuko duen hizkuntza politikaren ardatz nagusiak eta alorrez-alorreko egitasmoak zehaztu zituen: Elkargoaren Euskararen Aldeko Hizkuntza-politika.

Hiru multzo (transmisioa, erabilpena eta sostengu eta zeharkako funtzioak) eta horien barnean bildutako hogeita bat eremu zehatzetan sailkatutako neurriak jasotzen ditu dokumentuak.

Zerbitzuak euskaraz ematea, euskarazko eskaintza zabaltzea eta herritarrak sentsibilizatzea dira hizkuntza-politikaren hiru ardatz nagusiak. Hartara, alorrez alor, norabide berekoak dira helburuak. Horrela euskarazko zerbitzua bermatzea eta euskaraz aritzeko aukera ematearekin lotuta jaso dute: zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea; bizitza eremu guztietan nahi duten biztanleek euskara erabili eta transmititu ahal izan dezaten. Sentsibilizazioarekin lotuta, herritarrak zerbitzu horiek baliatzea bultzatzeko euskararen aldeko jarre-
rak eta dinamikak bultzatzeko bizitza eremu bakoitzean.

Egia ere bada, arduradunek berek zailtasunak sor zitezkeela aurreikusi zutela, are gehiago, azken urteetako bilakaera ikusita. Esaterako, lurraldeko funtzio publikoko postuetan euskaldunak bereizteko ezintasuna, herri batek ikastola berri batean eraikitzeke ezintasuna, frantses alfabetoan erabiltzen ez diren zeinu berezien erabiltzeke ezintasuna egoera zibileko dokumentuetan eta abar.

Hori horrela izanik ere, Kontseiluak aurrera-pausotzat jo zuen dokumentua. Hizkuntza-eskubideak bermatuta egon ez arren, eremu zabal bezain mamitsuak ukitzen ditu dokumentuak, bai sustapen-politikak jartzeko asmoetan, baina bai eta instituzioen barne eta

kanpo funtzionamenduari begira ere. Ondorioz, euskal hiztunek aukera izango dute euskarazko zerbitzua jasotzeko, eta hori aitzina-mendua da.

3.3. BALIABIDEAK

EAEko AURREKONTUEN BILAKAERA

Erakundeek euskararen esparrura zenbat diru bideratu duten, bi urtean behin ikerketa bat egiten du Eusko Jaurlaritzak. Azken azterketa 2016ko kontuei dagokie, eta irailean aurkeztu zuten txostena Eusko Legebiltzarrean. Ikerketaren arabera, goranzko bidea dute euskara aurrekontuek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gorakada horren oinarrian bi erakunde esparru daude: udalak eta diputazioak. Eusko Jaurlaritzak, berriz, gutxitu egin zuen euskara aurrekontua 2016an. Diruz gehiago izan arren, euskarak pisua galdu du aurrekontuetan, hazkunde txikiagoa izan baitu aurrekontu orokorrak baino. Beherakada garaian, kontra-koa gertatu zen: euskara aurrekontuak gehiago murriztu zituzten orokorrak baino.

Siadeco ikerketa elkarteak egin du aurrekontuei buruzko azterketa. Hiru erakunde esparruak hartu dituzte kontuan: Jaurlaritza, aldundiak eta udalak —kasu horretan, 5.000 biztanletik gorako herrienak—. 2016ko zenbakien arabera, hara: 148 milioi euro bideratu zituzten euskararen arlora, 2014an baino %1,4 gehiago. Handitu egin da kopurua, beraz, baina ez 2012tik 2014ra adina: %2,8ko igoera izan zuen orduan.

Eusko Jaurlaritza salbuespena da, 2016ko datuek diotenez: aurrekontua handitu egin zuen —%3 gehiago 2014an baino—, eta euskararen esparrukoa, txikitu —%5 gutxiago—. Horren oinarrian zer dagoen, faktore bat azpimarratu zuen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburu Bingen Zupiriak: euskalduntzeak aurrera egitearen ondorioz, irakasle gutxiago liberatzen dituztela euskara ikasteko, eta horrek ekarri duela gastuak jastea.

Hiru herrialdeak hartuta, biztanle bakoitzeko 69 euro bideratu zituzten erakundeek. Herrialdez herrialde alde handiak daude, hala ere. Udalak eta Aldundiak aintzat hartuta, Gipuzkoakoa da ratorik altuena: 48 euro biztanleko. Askoz atzerago daude Araba (36 euro) eta Bizkaia (33 euro). Eusko Jaurlaritzak jartzen du diru gehien, baina, proportzioan, udalena da ekarpenik handiena: batz bestea, aurrekontuaren %2,7.

NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuko ordezkariak 2018ko martxoan egin zuten legegintzaldian zehar euskararen sustapenari lotutako aurrekontuari buruzko balorazioa. Horrela, 2015etik 2018ra EUSKARABIDEAren aurrekontua 2,8 milioitik 6,9ra pasa da.

Horri esker hedabideen, euskaltegien, elkarleen eta tokiko entitateen laguntzak handitu dituzte. Besteak beste, berreskuratu ahal izan dira euskararen irakaskuntzarako zein erabilpen sozialerako oso garrantzitsuak diren laguntzak, esaterako, hedabideena, ekimen sozialeko elkarreana, euskaltegiena eta eus-

karazko planak dituzten tokiko erakundeena, arduradun politikoen arabera.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA

2018ko apirilaren 25ean sinatu zuten Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak bi erakundeek elkarlanerako duten konpromisoa. Horrela, 2017-2022 epealdian elkarrekin jarduteko adostua duten estrategiaren barruan, 2018rako lankidetzarako ildoak zehaztu zituzten. 1,9 milioi euro bideratu dira Ipar Euskal Herriko euskalgintzara, iazko kopuru berbera.

IRAKASLE FALTA SEASKAn

Ipar Euskal Herriari dagokionez, zalantzarik gabe SEASKAk ikasturte berriari begira izan duen irakasle falta azpimarratu beharra dago. Seaskak beste 25 postu galdegin zituen maiatzean, baina Frantziako Hezkuntza Ministerioak 5,5 eskaini zituen. Orduan, Ministerioaren eta Seaskaren arteko hitzarmenaren izenpetzailea den EEPk hamabost posturen beharra estimatu zuen, gutxienez.



3.4. EUSKAL HERRI OSOKO ADMINISTRAZIO NAGUSIEN ITUNA

Hizkuntza-politikarekin lotuta, azpimarraztekoa da, nola ez, 2018ko ekainaren 15ean Eusko Jurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak aurreko urtean sinatutako lankidetza-hitzarmena berritu zutela.

Aurkezpenean, itun hori berritzeaz gain, pauso handiagoak emango dituztela jakinarazi zuten, besteak beste, koordinazio batzorde gehiago izango dituztela.

Aurten sinatutako akordioan bost egitasmo nagusi jaso zituzten: Hezkuntza eta helduen euskalduntzea; erabilera sustatzea; sustapena; ikerketa corpusa eta Europa.

4

HERRI-GOGOA



Lehen atalean irudikatu bezala, hizkuntza baten normalizazio prozesuak lau zutabe sendo behar ditu. Lau zutabe horietatik hiru hizkuntza-politikari lotzen zaizkio. Laugarrena, aldiz, herri-gogoari.

Horrela, askotan esan izan dugun bezala, hizkuntza baten normalizazio-prozesua sozio-politiko da. Herri-gogo indartsua behar du normalizazio-prozesuak, besteak beste, gainerako hiru zutabeak sendoagoak izan daitezkeen bermatzeko.

Are gehiago, askotan aipatzen den instituzioen eta gizarte-eragileen arteko sinergiak eta aliantzak hor kokatu behar dira. Finean, herri-gogo indartsuaren bultzada eta sustenguekin neurri are ausartagoak hartzeko aukera izango dute botere publikoek.

Halere, eta ondoren ikusiko dugun bezala, herri-gogoari badagokio aldarria egitea, aktibaziorako ekintzak antolatzea edota euskaraz bizitzeko tresnak eta espazioak aitortzea ere.

Gauzak horrela, 2018 urtean herri-gogo indartsua dagoela erakutsi du euskararen herriak, nazio mailako, lurralde mailako zein herri mailako dinamikak, tresnak edota espazioak sortuz.

4.1. EUSKARALDIA

Zalantzarik gabe, herri gogo indartsu horren erakusleho garrantzitsuena EUSKARALDIA izan da.

2017ko azaroan aurkeztu zen Bilbon hizkuntza-ohituretan eragin eta euskararen erabilera areagotzeko EUSKARALDIA ekimena. Bertan, dinamikaren sustatzaile diren 27 entitate eta erakundeetako ordezkariak hartu zuten parte.

Herritar euskaltzaleak aktibatuta hizkuntza ohiturak aldatzea da EUSKARALDIaren helburua. Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkar-tek urteetan zehar landu duten Euskarak 365 egun lan ildoaren baitan kokatzen da eta bi mugarri izango ditu.

Batetik, euskal hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea eta beren harreman-sareetan euskara gehiago erabiltzea izango da 2018ko azaroa eta Abendua bitartean egingo den Euskaraldia 11 egun euskaraz ekimenaren helburua. Bestetik, hizkuntzaren normalizazioaren arduraren pertsonen eta entitateen artean partekatua denez, 2019an, mota guztietako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea izango da helburua.

Aurkezpenetik bertatik atxikimendu handia jaso duen dinamika da, eta hamarnaka herritan sortu dira EUSKARALDIA aurrera eramateko batzordeak Euskal Herri osoan. Gainera, izaera desberdinetako eragile politiko, sindikal eta sozialek ere bat egin dute ekimenarekin.

Urteko irakurketa argitaratu aurretik plazaratu diren datuen arabera, 60.000 herritar baino gehiagok eman du izena EUSKARALDIko aktibo bihurtzeko, ahobizi zein belarriprest.



4.2. DINAMIKAK NAFARROAN

2015ean Nafarroako hizkuntza-politiketan aldaketa-faseari ekin zitzaion. Hainbat urtez ilunpean egon eta gero, argi-izpiak piztu zizuten euskaraz bizi nahi dutenentzat.

Halere, izan da, bai, argi-izpi horiek itzaltzen saiatu dena. Hor kokatzen dugu, esaterako, arestian aipatu dugun hezkuntzako zerrenda bakarraren afera.

Gogoan izan behar dugu abenduan Nafarroako Parlamentuak onartutako lege horren ondorioz hautagai euskaldunak diskriminatuko direla.

Bidegabekeria hori salatzeko 2017ko abenduan Kontseiluak Iruñeko karrikak bete zituen euskal gehiengo sindikalaren babesarekin. Egia da, bai, ez zirela erabakia baldintzatuko zuten Ezkerreko bi parlamentarioen bozkak baldintzatu. Halere, presio handia sortu zuen herri-gogoak.

Horrekin batera, gogoratu behar dugu 2018ko otsailean Nafarroako Parlamentuan euskaren lege berria prestatzeko batzorde berezia abian jarri zela. KONTSEILUAK ere bere proposamena prestatu nahi zuenez, herritarren iritziak jasotzea erabaki zuen eta, ondorioz, legeak ezarritako hiru hizkuntza-eremuetako hainbat herritan, arrakastaz, lan-saioak anto-

latu zituen legeak izan beharreko elementuak jasotzeko.

Behin proposamena Parlamentuan aurkeztuta, 2018ko urriaren 27an milaka pertsona atara ziren Iruñeko karriketara justizia, berdintasuna eta kohesioa ardatz izango dituen lege bat exijitzeko, Kontseiluaren eskutik.

4.3. BESTELAKO MOBILIZAZIOAK, DINAMIKAK ETA PROIEKTUAK

Mobilizazioei dagokienez, aipatzeko modukoak dira SEASKAk deitutakoak, Brebeta azterketa euskaraz egiteagatik ikasleek pairatutako bereizkeria salatzeko edota ikasturte berrirako Estatu frantseseko Gobernuak beharrezko lanpostuak esleitu ez izana salatzeko.

Horretaz gain, ofizialtasuna aldarrikatzeko mobilizazioak antolatu zituen Euskal Herrian Euskarazek Iruñean eta Baionan.

Beste urte batez, bosgarrenez hain zuzen ere, ERRIGORA ekimena ere aurkeztu da. Auzolana, herri-lana eta zubigintza dira proiektuaren ardatzak, eta aurkezpenean emandako datuen arabera, proiektuari ekin ziotenetik 800.000 euro bideratu dituzte Nafarroako hegoaldean euskara sustatzeko.

Bestalde, 2017an hasiera eman bazitzaion



ere, oso interesgarria da Europa mailan FUEN (Federal Union of European Nationalities) erakundeak abiarazitako gutxiengoaren babesarako ekinaldia. Herri ekinaldi legegilea bideratzeko 1.215.879 sinadura bildu ziren, eta eskaerak Europako Batzordearen esku utzi zituzten antolatzaileek. Euskal Herrian ere euskalgintzak eta bestelako eragile politiko, instituzional eta sindikalek sustatu zuten sinadura-bilketa. Nazioartean Kontseilua kide duen ELENek ere modu aktiboan sustatu zuen sinadura-bilketa.

Bederatzi eskaera egiten ziren ekinaldian: hizkuntza gutxituen sustapena, diru-laguntzak, aniztasunaren zentroa sortzea, garapenerako funtsak esleitzea, gutxiengoaren ekarpenari buruzko ikerketa egitea, estrategia bateratuak bultzatzea, copyright lege bateratua, ikus-entzunezko edukiak mugaz gaindi hizkuntza gutxituan eskaintzeko eta jasotzeko zerbitzu-askatasuna eta kulturaren eta ondarean adierazpideak eta komunikabideak estatu laguntzen arautegitik salbuestea.

Horretaz gain, 2018an ere euskal hezkuntzaren inguruan antolatutako jai guztiak ere izan dira: Herri Urrats, Euskal Eskola Publiko Berriaren Festa, Ibilaldia, Eskola Publikoaren Jaia, Eskola Txikien Jaia, Kilometroak eta Nafarroa Oinez. Aurten ere, jai horiek guztiak antolatzen ziren herrietan sortutako elkarlana ikaragarria izan da.

Atal hau ezin amaitu euskaraz bizi nahi duen herri-gogo indartsuaren isla den, lau urtero antolatzen den eta 2017ko abenduan 13.000 pertsona elkartu zituen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia aipatu gabe.

4.4. EUSKO IKASKUNTZAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN MENDEURRENAK

Amaitzeko, ezin ahaztu 2018 urtean euskararekin lotura handia duten bi eragileren mendeurrena izan dela, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia. Biek ala biek hausnarketa prozesuak abiatu izan dituzte, eta horien berri jaso dugu jarraian.

EUSKO IKASKUNTZAri dagokionez, *Geroa Elkar-Ekin* lemapean, XVIII. Kongresua Mendeurrenako ekitaldien amaiera izango da. Programa bost saiotan egituratu da, 2015az geroztik Eusko Ikaskuntza bultzatzen ari den bost proiektu nagusiekin lotuta dagoena: Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea; E5: Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen; Gizartea: Aniztasuna eta kohesioa; Garapen sozio-ekonomikoa; Gobernantza Demokratikoa eta itxiera: Geroa Elkar-Ekin.

Euskarari dagokion atalean Euskalgintza berriaren oinarriak proposatu zituen Eusko Ikaskuntzak, eta horretarako euskararen hitzun komunitatean aktiboak proposatu zituen. Aipatzekoa da Kontseiluak Kapital Politikoen barruan ekarpen propositibo bi egin eta aurkeztu zituela: *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa* (ekarpen transbertsala) eta *Euskal Herriko Hizkuntza Politik(et)an Akordioa(k)* (ekarpen zehatza).

EUSKALTZAINDIAK *Euskara ehuntzen* leloa baliatu du mendeurrenarako antolatutako ekitaldiak izendatzeko. Mendeurrena ospatzeko hamaika jardunaldi akademiko antolatuko ditu 2018-2019an zehar. Aurten bi jardunaldi izan dira; batetik, euskararen batasunari Ipar Euskal Herritik egindako ekarpenari buruzkoa Baionan, eta, bestetik, Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018): Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra, Arantzazun.

Jardunaldi Akademikoez gain, Euskaltzaindiak argitalpen berriak egin ditu mendeurrenaren karira, besteak beste, Euskara Batuaren Eskuliburua. Halaber, ekitaldi instituzionalak ere antolatu ditu 2018an zehar. Batetik, Oho-rezko Patronatuaren osaera eta aurkezpena, bigarrenik, hitzarmena Euskal Hirigune Elkar-goarekin, Euskararen Erakunde Publikoarekin eta Baionako Herriko Etxearekin; eta, azkenik, Euskara Batua adierazpenaren aurkezpena eta sinatze-ekitaldia.

Azpitarratzekoa da Euskara Batua adierazpenaren sinatze-ekitaldian Euskal Herri osoko instituzioetako, euskalgintzako, hezkuntzako, hedabideetako eta bestelako hamarnaka eragileek parte hartu zutela.

5

ONDORIO NAGUSIAK



Ondorioekin hasi aurretik, iazko azaroan 2017ko *Urteko irakurketaren* ondorioak ekarri nahiko genituzke, hain zuzen ere, orduan aurreikusitakoa zein puntutaraino bete den, eta horrela hurrengo hilabeteetako erronkak non egon daitezkeen zehaztu ahal izateko.

Lehenik eta behin, gogoratu nahiko genuke, 2017an publiko egin ziren inkestek eta neurketak normalizazio-prozesuaren bilakaeraren elementu argigarriak jartzen zituztela adierazi genuela. Horregatik, hizkuntza-politikan sakoneko berrikuspena egin beharra ikusi genuen: "Hizkuntza-politikak birpentsatu behar ditugu" adierazi genuen.

Eta, hizkuntza-politikaren birpentsatze horren barruan adierazi genuen ez ginela hutsetik abiatzen, alegia ez genuela orri zuririk. Horregatik mahai gaineratu genuen European eta Euskal Herrian hizkuntza-politiken inguruan inoizko adostasun handien izan duen iturburu-kodea: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Horri lotuta, 2018an Protokoloaren Euskal Herriko Garapena aurkeztu dugu. Urte eta erdiko prozesuaren ondoren hamarnaka eragileekin zehaztu dugu zein diren Protokoloak

jasotzen dituen 185 neurriak euskarari aplikatzeko gidalerroak edo bideorria. Hartara, hizkuntza-politikak birpentsatzeari begira adostasun sozial zabaleko proposamena jarri dugu mahai gainean.

Bestalde, zalantzarik gabe hanka sozialari begira urte oparoa izan dugu 2018a eta are oparoagoa izango da urtearen amaieran. Aldarrikapen zehatzei begirako manifestazioez gain, edota euskaraz bizitzeko tresna eta espazio berriez haratago, arestian esan bezala, Euskalaldia izan da normalizazioaren hanka soziala indartzeko ekimen garrantzitsua.

Euskal Herri osoko eragile sozialek, sindikalek, instituzionalek, politikoek... eta euskalgintzak aktibazioari begirako urratsa egiteko prozesuak txoko guztietan eragin du. Hartara, aliantza berriak eta berritzaileak irudikatzeko ere arras baliagarria izan da Euskalaldia.

Hori kontuan hartuta, eta iazko urteko irakurketan ondorioztatutakoari erreparatuta, Kontseiluak etorkizuna irudikatzeko estrategia irudikatu nahi izan du. Esan behar dugu, Eusko Ikaskuntzak mendeurrenaren karira antolatutako kongresuaren Euskararen Etorkizuneko Estrategiak Elkarrekin Eraikitzeke mintegira-



ko ekarpen propositiboa prestatu beharrak ere etorkizunari begirako lanerako bide-orria zehaztarazi zigula. Hartara, ekarpen hori bero-ri jaso nahi dugu Urteko irakurketan hurrengo urteetako erronka gisa: *Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)*.

Horrela, ekarpen horretan adierazi bezala, bada garaia administrazioko sail eta maila guztietan eraginez, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzeko Euskal Herri osoan; bada garaia instituzioen eta euskalgintzako eragileen arteko konplizitatez eraikiko den eta hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duen hizkuntza-politika abian jartzeko.

Horrela, Kontseiluak adostasun sozial zabala duen proposamena jarri du lankidetzara hori jorratzen hasteko. Arestian aipatu dugu bai, Europan inoiz egin den hausnarketa parte hartzaileenaren ondorioz aurkeztutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Euskal Herriko Garapena aurkeztu genuela.

Zalantzarik gabe, akordioen dinamika konplexua da, baina hasieratik bertatik lorgarriak diren akordioekin hasi behar dugu.

Egia da, Kontseiluan, azken hilabeteotan horrelako dinamiken garrantziaz hausnartu dugula, iruditzen zaigulako bide horrek aukerak zabalduko dituela eragile desberdinen (euskalgintzakoak, sozialak, sindikalak, instituzionalak) lankidetzarako zehatzak definitzeko eta aurrera eramateko.

Are gehiago, eremu batzuetan urrats zehatzak egin daitezkeela iruditzen zaigu, besteak beste, hezkuntzaren eremuan, teknologia berrien eremuan, hedabideen eremuan... Euskalgintzako eragileok eta beste eremu batzuetako eragileok gai izan gara eremu horietako hizkuntza-politiketan lehentasunak definitzeko, bai eta gure ekarpen praktikoa zehazteko ere. Kasu horietan, beraz, hurrengo urratsa akordio horiek eragile instituzionaletara hedatzea izango da, eremu horietako hizkuntza-politiketan jauzia egiteko.

Eta, aliantza-estrategia horren barruan lehentasunak ezarri beharra ikusten dugu. Guretzat bada eragin handiko bat, hain zuzen ere, hezkuntzari begirakoa. Irakurketan azaldu bezala, egun badago euskalgintzaren, hezkuntzako eragileen eta eragile sindikalen arteko adostasun handia belaunaldi berriak euskaldunduko dituen hezkuntza-eredua abian jartzeko. Uste dugu, aukera erreala daudela esparru horretan beharrezko jauzia egiteko, eta akordio bidezko estrategia lagungarria dela uste dugu.

Horrekin batera, egia da, bai, beste eremu batzuk ere esploratzen ari garela, esaterako, lan-mundua euskalduntzeko plangintza estrategikoa edo arnaguneen garapena.

Euskaraldiarekin hanka soziala sendotzeko erakutsitako sinergiak hanka politikora eramane behar ditugu. Horrela, eramane ditzagun orain sinergia horiek *Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)* ekinbide-gakora. Horrek harreman-eredu berriak sorrarazi beharko ditu Euskalgintzaren eta instituzioen artean. Hartara, hor ere birpentsatze-ariketa egin beharko dugu eta, zalantzarik gabe, ongi eginez gero, hurrengo urteko irakurketa egitean, 2019an prozesuaren alde soziala eta politikoa azkartu ditugula esango dugu.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

www.kontseilua.eus



www.twitter.com/kontseilua



www.facebook.com/EuskararenKontseilua

